

“Lurkantak”?

Abuztuaren 24an lurkantak entzun omen ziren Donostian. Lurrikara noski. Baina sismografoek ez zuten ezer jaso. Richter eskala baretasun osoan egon omen zen.

Biharamuneko egunkariek titular handietan zekartenez, “Lurkantak” entzun ziren. Baina hara nondik aditzera ematen ziguten Donostiako Orfeoiares eskariz Antón Garcia Abril jaunak sortutako obra zela “Lurkantak” ziotena. San Francisco, Lisboa, Tokio, Yokohama,... edo horietako batean gertatuaren eraginean inspiratua ote? Edo, nork daki, Napoloko Vesubio bolkanaren hotsetan oinarriturik, napolitanoen kanturako doainen gorespenez. Lehen lehenik hori bururatu zitzaidan.

Baina, bai zera, berri horren testu irakurketan ohartu nintzen ez duela hortaz ezer ikustekorik. Arraioa! Lurrak ba ote zuen lurrikarak edo bolkanek sortzen duten hotsaz gainera besterik?

Euskaldunok beti denik erabili dugun “herrikantak” zirela ohartzeaz pentsatu nuen: euskaldun jatorrik ez ote ehun urte bete dituen Donostiako Orfeoian?

Inork ez ote daki euskaldunok antzinako greziarrek bezala bereizten dakitugula *lur* eta *herri*? Zeren orain konturatzen naiz gaztelararen arabera erabiltzen den “*canción de la tierra*”-tik hitzez hitz jaso dela, gaztelarak latinetikakoa nahastetik. Baina sinestezina iruditzen zait euskarara horrela itzultzea; euskaldun jatorrarentzat, senez, ez bai du zentzurik.

Euskaraz ez dakiten, edo are gehiago euskarari kalterik egin nahi ez dutenek, hobe lukete hiztegi soilean oinarriturik beren ustezko itzulpenik ez egitea. Hobe dute erdera hutsean egin eta kitto.

J. S. M.